



EBAZPENA, HEZKUNTZA SAILBURUORDEARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXEETAN ESKOLA-JAZARPENEN EGOERETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA ETA HEZKUNTZA EREMUAN JOKABIDE SUIZIDAREN AURREAN ESKU HARTZEKO ETA POSBENTZIOA EGITEKO PROTOKOLOA ARAUTZEN DITUENA

SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legeak, 3. artikuluan, euskal hezkuntza-sistemaren printzipioak jasotzen ditu, eta, besteak beste, elkarbizitza positiboa eta kulturartekotasuna aitortzen ditu askotariko eskola libre, seguru eta indarkeriarik gabeko baten zutabe gisa.

Era berean, elkarbizitza positiboa III. kapituluaren ardatz nagusia da, eta gizarte kohesionatu batean askotariko eskola baten ardatz egituratzailea, inklusioaren eta berdintasunaren alde egiten baitu, bai eta hezkidetzaren eta kulturartekotasunaren alde ere. Alde horretatik, 31. artikuluan (Elkarbizitza positiboa, askotariko eskola baten ardatz egituratzaile gisa) honako hau ezartzen da:

1.– Elkarbizitza positiboa ikasleen garapen sozial, emozional eta pertsonalaren abiapuntua da, eta ezinbesteko oinarria, errespetuzko eta enpatiazko esparru batean, ikasleen heziketa-arrakasta eta ikaskuntza esanguratsua lortzeko. Ikastetxeek ongizate-, segurtasun- eta konfiantza-giro egokia eskaini behar dute, ikasleen nortasunaren garapena bideratzeko eta gainerako ikasleekin berdintasunezko harremanetan jartzeko; helburu eta proiektu komun batzuk formulatu behar dituzte, hezkuntza-kooperazio edo -lankidetzako hezkuntza-praktikak sorraraziko dituztenak, elkarreragin positiboak bultzatuz.

2.– Elkarbizitzak –eskola askotarikoa eta plurala egituratzeko oinarria den aldetik– inklusioa bermatzea dakar berekin. Aukera-berdintasuna bermatuko duten praktikak eta hezkuntza-espazioak bultzatuko dira, aniztasunaren balioetik abiatuta, lotura hori sendotzea helburu dutela. Plan batzuk egingo dira, eta hezkuntza-baliabide, -praktika eta -espazio batzuk sustatuko dira, aukera-berdintasuna bermatzeko eta lotura konpontzaileak eta positiboak indartzeko eta garatzeko.

Ildo beretik, *maiatzaren 30eko 77/2023 DEKRETUAK, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak*, 6. artikuluan ezartzen du, Oinarrizko Hezkuntzaren printzipio pedagogikoen artean, lehentasunezko zat jotzen dela haurren eta gazteen ongizate emozionalari arreta berezia ematea. Ongizate emozional horrek barnean hartzen ditu, batetik, ondo, harmonian eta lasaitasunez sentitzeko esperientzia subjektiboa, eta, bestetik, norberarekiko gogobetetze-esperientzia pertsonala, zailtasunei aurre egin eta positiboki gainditu ahal izateko. Bereziki, arreta jarri behar zaio indarkeria motaren bat —indarkeria matxista, LGBTIfobikoa edo arrazista edo dibertsitate-gaiei lotutako beste bat— jasaten denean sortzen diren ondoez-egoerak identifikatzeari.

Horri lotuta, 7. artikulua, Oinarrizko Hezkuntzaren helburuen artean, jasotzen du nortasunaren esparru guztietan eta gainerakoekiko harremanetan gaitasun afektiboak indartzea, gatazkak modu baketsuan konpontzea eta indarkeria —bereziki, indarkeria matxista eta indarkeria LGBTIfobikoa—, edonolako aurreiritziak eta portaera sexistak baztertzea.

Aurrekoarekin guztiarekin bat, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak, honako helburua du: ikastetxeetako elkarbizitza-esparrua arautzea, ikasleek beren eskubideak baliatzen eta beren betebeharrak betetzen ikas dezaten, gizartean eskubide osoko herritar gisa integratzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratuta.



Eskolako elkarbizitzari buruzko hainbat ikerketek gomendatzen dute elkarbizitza alderdi positiboetatik abiatuta lantzea, eta, hausten denean, unean uneko erantzunean baino gehiago, elkarbizitza positiboa bultzatzen duten estrategietan jartzea arreta. Ikuspegi horrek eskola-giro egokia lortzen laguntzen du, eta ikasleei garapen pertsonal eta sozialerako gaitasunak eskuratzen laguntzen die.

Alabaina, agerikoa da ikastetxeak kokatuta dauden tokiko inguruabarrek eragina dutela ikastetxeetako elkarbizitzan. Indarkeriaren fenomeno sozialaren aurrean ikastetxeek ezin dute aldentuta geratu. Era askotara ager daiteke, baina ezin dira indarkeriazko jokabide guztiak jazarpenzat hartu. Iritzi orokorraren arabera, hauxe da eskola-jazarpen bat modu espezifikoan bereizten duena: behin eta berriz gertatzea eta denboran zehar irautea, helduen begiradatik urrun eta babesik gabeko biktima bat umiliatzeko eta gehiegikeriaz menderatzeko asmoarekin.

Gainera, aipatutako lau ezaugarri horiez gain, beti da beharrezkoa kasu bakoitza modu orokorrean aztertzea, inplikatura dauden pertsonen sortutako arazoaren eragina eta denboran zehar izan duen bilakaera modu orokorrean analizatzea, jazarpena dagoen ala ez eta haren izaera edo garrantziari buruzko balio-iritzi eztabaiaezina eta oinarritua eman ahal izateko.

Ikastetxeetan sor daitezkeen eskola-jazarpeneko egoerak kudeatzen laguntzeko, EAE-KO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXEETAN ESKOLA-JAZARPENeko EGOERETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA ezarri da. Protokolo horretan zehazten da ikastetxeek zer urrats egin behar dituzten eskola-jazarpeneko egoera bat hautematen denean edo horren berri izaten denean.

Eskola-elkarbizitza positiboa sustatzeko ikastetxe bakoitzak bultzatu behar dituen jardueren barruan kokatzen da protokoloa. Eta esku-hartze eskariren bat egon den kasu guztietan ikastetxeek ahalik eta azkarren, eraginkorren eta seguruen jardungo dutela bermatzea da haren helburua.

Era berean, horrelako egoeratan eman beharreko urratsei buruzko orientabide argiak ematen ditu protokoloak. Oinarritzko jardueren proposamen bat da, eta ikastetxe bakoitzak bere inguruabar berezien arabera eta ezarritako elkarbizitza-arauen barruan, zabaldu eta sakondu ahal izango ditu.

Modu osagarrian, Hezkuntza Sailak Bizikasi ekimena jarri zuen martxan, 2017-2018 ikasturtean. Ekimen horrek norberarekiko eta pertsonen arteko harremanak berreskuratzeko eredia hartzen du oinarritzat, eta jazarpen kasuak ebazteko prozesuan esku-hartzea ikuspegi sistematiko-ekologikoa ardatz hartuta egitea bultzatzen du. Ikastetxeak elkarbizitza positiboko gune seguru eta inolako jazarpen-egoerarik toleratzen ez duten espazio bihurtzea da Bizikasi ekimenaren helburua. Izan ere, hori lortzea ezinbestekoa da hezkuntza-sistemaren xede nagusia betetzeko, alegia: ikasle guztiei laguntzea haien garapen pertsonalean zehar eta, kompetenziak eta tresnak ematea gizartean parte har dezaten herritar aktibo eta arduratsu gisa.

Testuinguru horretan, Hezkuntzaren arloko eskumenak dituen sailak jarraituko du eskola-jazarpenari buruzko sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak egiten, eta arlo horri buruzko prestakuntza emango die irakasleei eta BAT taldeei. Prestakuntza hori nahitaezkoa izango da funts publikoekin babestutako ikastetxe guztientzat.

Aipatutako 17/2023 Legeak ezartzen duenez, ikastetxeak inklusio- eta ongizate-guneak izango dira, non ikasleen hezkuntza- eta emozio-garapena erabatekoa izango baita, autoestimua eta nortasunaren garapena indartuko baitira eta arreta eta kontzentrazioa sustatuko baitira ikasleen hezkuntza-zereginetan eta lan pertsonalean.



Testuinguru horretan, ikastetxeen eginkizun nagusia garapen integrala bermatzea da, irakaskuntza eta ikaskuntza erraztuko duten inguruneen bidez. Hori dela eta, ikasgelak ingurune ezin hobea dira osasun mentala sustatzeko eta kudeaketa emozionaleko eta erresilientziako prebentzio-estrategiak, besteak beste jokabide suizidari buruzkoak, ikasteko: arrisku-faktoreez jabetzea, ohiko alarma-seinaleak detektatzen jakitea eta laguntza bilatzea, konektibitatea eta kide izatearen sentimendua sustatuz.

Ikastetxeetako profesionalak askotariko hainbat ikaslerekin bizi dira. Ikasle horiek bizipenak eta jokabideak adierazteko modu desberdinak dituzte, egoera afektibo konplexuen adierazpena izan daitezkeenak, kudeatzen zailak diren egoerei lotuta. Horregatik, profesionalak adi egon beharko dute alarma-seinaleei; izan ere, barne-sufrimenduaren eta -ondoezaren adierazgarri dira, eta, askotan, suizidak ez diren autolesioen adierazpenetan ere antzematen dira. Garrantzitsua da kontuan hartzea alarma-seinaleen zerrenda luzea dela eta seinale horietako batzuk beste arrisku-egoera batzuekin ere lotzen direla (egokitzapen-arazoak, depresioa, etab.), edo, are gehiago, aldi baterako ager daitezkeela inplikazio garrantzitsurik gabe, eta, beraz, testuinguru orokorra (pertsonek arrisku suizidako faktorerik duen ala ez) eta alarma-seinalearen ezaugarriak kontuan hartuta baloratu behar direla.

Gure ikasleen artean gertatzen diren ondoez emozionaleko egoerak behar bezala kudeatzeko, 2022ko urrian, Hezkuntza Sailak "[Hezkuntza-eremuan jokabide suizidaren prebentzioa, esku-hartzea eta posbentzioa egiteko estrategia](#)" argitaratu zuen, Osasun Sailarekin, Osakidetzarekin eta EHUrekin lankidetzan. Estrategia horren zati bat da HEZKUNTZA EREMUAN JOKABIDE SUIZIDAREN AURREAN ESKU HARTZEKO ETA POSBENTZIOA EGITEKO PROTOKOLOA, jokabide suizida duten ikasleak hautematen edo horien berri izaten den kasuetan ikastetxeek jarraitu beharreko urratsak zehazten baititu.

Adierazitakoa dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

LEHENA.- EBAZPEN HONEN XEDEA

1. Eskola-jazarpeneko egoeretan jarduteko protokoloa ezartzea eta horren erabilera arautzea.
2. Hezkuntza eremuan jokabide suizidaren aurrean esku-hartzeko eta posbentzioa egiteko protokoloa ezartzea eta horren erabilera arautzea.

BIGARRENA.- APLIKAZIO-EREMUA

Funts publikoekin finantzaturako EAEko ikastetxe guztiak.

HIRUGARRENA.- ESKOLA-JAZARPENeko EGOERETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

Protokoloaren helburua da ikastetxeetako irakasleek eta hezkuntza-komunitateko gainontzeko kideek jakin dezatela nola jardun eskola-jazarpeneko balizko kasu baten aurrean. Elkarbizitza positiboa bultzatu nahi du, jazarpenari emandako erantzunak beti eduki dezan asmo hezitzailea, eta etorkizunean era horretako egoerak agertzea eragotziko duten balioetan oinarrituta elkarrekin bizitzen ikasteko gaitasuna bultzatu dezan.

Protokoloak esku-hartzea arautzen du, eta honako printzipio hauen arabera gauzatuko da: prebentzioa, jazarpenarekiko sentsibilizazioa, konfidentziasuna, inplikaturako ikasleen babesa, koordinaturako esku-hartzea, sistematizazioa, eraginkortasuna eta berehalakotasuna.



Oinarrizkoa eta nahitaez bete beharrekoa da protokoloa, baina ikastetxe bakoitzak egokitu edo zabaldu ahal izango du, bere testuinguruaren edo kasuaren berezitasunen arabera.

Oharpide orokorrak:

Ikasleen datuen isilpeko tratamendua

Ikasleen datuak konfidentziasunez tratatu behar direnez, dokumentu bakoitzean ezartzen diren konfidentziasun-jarraibideak beteko dira protokoloa aplikatzean sortzen den dokumentazioan.

Ikastetxearen zuzendaritzatik, familiei jakinaraziko zaie oso garrantzitsua dela ez zabaltzea eskuratu ahal izan duten edozein informazio, protokoloa garatu bitartean.

Aurkeztutako datuen zein pertsonak ematen dituzten datuen konfidentziasuna mantentzeko, zuzendaritzak haien seme-alabei buruzko informazioa baino ez die emango familiei, eta inoiz ez inplikaturako gainerako ikasleei buruzkoa.

Hezkuntzako Ikuskaritzaren eta laguntza-zerbitzuen eginkizunak.

Ustezko jazarpen-kasuekin lotutako eskarien aurrean, protokoloa aplikatzearen ondoriozko kudeaketa egokia bermatzera dago zuzenduta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eta laguntza-zerbitzuen arteko lan koordinatua.

- Alde batetik, Hezkuntzako Ikuskaritzaren ardura izango da gainbegiratzea protokoloa behar bezala aplikatzen dela, nahitaezko dokumentazioa betetzen dela eta B txostenean jasotako jarduketak gauzatzen direla.
- Bestetik, laguntza-zerbitzuak arduratuko dira BAT taldeei aholkularitza emateaz, protokoloa garatzeko egiten dituzten esku-hartzeetan.

Jardun-protokoloaren dokumentazioa.

Ikastetxeetan eskola-jazarpeneko egoeretan jarduteko protokoloak zenbait akta- eta txosten-eredu ditu:

- Esku-hartzeko eskariari buruzko akta (0. eranskina).
- Irakasle-taldeak ikastetxean egindako bileraren akta
- Alta-eredua
- A txostena
- B txostena

Hezkuntzako Ikuskaritzara eta laguntza-zerbitzuetara bidaltzeko nahitaezko dokumentazioa

- Esku-hartzeko eskariari buruzko akta (0. eranskina). Jatorrizko dokumentua ikastetxean artxibatuko da, eta kopia bat bidaliko zaie Hezkuntzako Ikuskaritzari eta laguntza-zerbitzuei.
- A txostena: Jatorrizko dokumentua Hezkuntzako Ikuskaritzara bidaliko da, eta kopia bat laguntza-zerbitzuetara.



- B txostena: Jatorrizko dokumentua ikastetxean artxibatuko da, eta kopia bat bidaliko zaie Hezkuntzako Ikuskaritzari eta laguntza-zerbitzuei.
- Itxiera-akta (akta-ereduaren arabera): Jatorrizko dokumentua ikastetxean artxibatuko da, eta kopia bat bidaliko zaie Hezkuntzako Ikuskaritzari eta laguntza-zerbitzuei.

Protokoloaren epeak.

Errespetatu egingo dira urrats bakoitzean adierazitako epeak. Adierazitako epeak ezin direla bete irizten badu zuzendariak, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko, Hezkuntzako Ikuskaritzaren oniritzia eskatu beharko du.

Protokoloaren hasiera

Ikastetxeak eskola-jazarpen eremukoak izan daitezkeen jarrerak ikusi edo jakin dituen kasu guztietan hasiko da protokoloa: ikasleren batek beraren edo bere kideren baten aurkako ustezko jazarpen-egoera bat dagoela adierazten duenean; ikaslearen familiak edo legezko tutoreek hori adierazten dutenean; edo beste pertsona batzuk egoera zehatz bati buruz ohartarazi dutenean. Polizian edo epaitegietan salaketa bat jarri dela, Arartekoari igorritako kexa bat edota Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskaria dagoela jakitean ere hasiko da protokoloa.

Ustezko jazarpen-jokabideak ikastetxetik kanpo gertatzen badira ere, protokoloari hasiera emango zaio eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen bada edo indarreko arautegian araututako gorabeheraren bat gertatzen bada.

Protokoloaren garapena.

Zuzendariarena da ikastetxeko elkarbizitzari buruzko ardura nagusia. Beraz, protokoloa erabiltzen dela bermatuko du eta haren garapena koordinatu, eta inplikaturako eragile guztien esku-hartzeen hezkuntza-izaera eta legezkoatasuna ere ziurtatuko ditu.

BAT taldeak gidatuko ditu jazarpen-kasu posibleei erantzuteko jarduketak, eta elkarbizitza positiboa eraikitzeko proposamenak egingo ditu. Talde horretan, gutxienez, honako hauek egongo dira: zuzendaria edo ikasketaburua, irakasle orientatzaileak/aholkulariak, hezkidetzaren arduraduna eta ongizatearen eta babesaren koordinatzailea.

Jarduketa-prozedurak honako fase hauek ditu:

1. Urratsa.- Esku-hartzeko eskaria (hezkuntza-komunitateko kideak, ustezko biktimaren familia) jazarpentzat jo daitezkeen jokabideen aurrean.

Ez da erraza jazarpena ikustea, horregatik, ezinbestekoa da ikastetxearen ohiko dinamikan hezkuntzako eragile guztien sentsibilizazioa eta arreta sistematikoa eta orientatua txertatzea, batez ere irakasleena eta ikasleena, jazarpenarekin lotuta egon daitezkeen egoera eta portaerei dagokienez. Komunikazio-bide egokiak ere ezarri behar dira ikastetxeko elkarbizitzaren egoerari buruzko informazio garrantzitsuen berri edukitzeko, eta, zehazki, jazarpenarekin lotutako jokabide posibleen berri. Jazarpenari buruzko curriculum-jarduera espezifikoak ere jarri behar dira martxan.

Ilido horretan, familiak edo hezkuntza-komunitateko edozein kidek eskola-jazarpenarekin zerikusia duen jokabide edo zantzuren bat dagoela ikusten badu edo horren berri badu, ikastetxeko zuzendaritzari, BAT taldeko arduradunen bati edo ikastetxeko irakasleren bati jakinarazi beharko dio, eta horrek BAT taldeari



jakinaraziko dio. Esku hartzeko eskaria 0. eranskinean jasoko da (ezarritako ereduaren arabera), eta ustez jazarpena jasan duten ikasleak babesteko premiazko hasierako neurriak hartuko dira, baita ebidentziak biltzeko neurriak ere.

Eskaria familiatik badator, zuzendaritzak behar den arreta guztia emango dio, eta ikaslea babesteko hartuko diren premiazko neurriak azalduko dizkio. Lankidetzeta estuan jarduteko eskatuko zaio, izan ere erantzukizuna partekatzea baita inplikaturako adingabeari laguntzeko modurik egokiena. Protokoloaren aplikazioak jazarpena egon den ala ez egiaztatzeko aukera emango du.

Esku hartzeko eskariaren aktan honako hauek jasoko dira: gertakarien deskribapena eta eskaria oinarritzeko aurkezten den dokumentazio osagarria, bai eta ikastetxeak ikaslea babesteko hartzen dituen premiazko neurriak ere. Aktaren kopia bat emango zaio familiari, eskaria familiatik datorrenean.

Demandaren jatorria familia ez bada, ikastetxeko zuzendaritzak jasotako komunikazioaren berri emango dio ustezko biktimaren familiari, eta, gainera, familiak egoerari buruz ematen duen informazioa bildu beharko du. Hori guztia akta batean jasoko da (akta eredu), eta ikastetxean geratuko da, Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskura.

0. eranskina (esku hartzeko eskariaren akta) jaso ondoren, elkarbizitzaren arloko laguntza-zerbitzuak harremanetan jarriko dira BAT taldearekin, ustezko biktima babesteko neurriei buruzko aholkuak emateko eta taldeari beharrezkoak diren datuak eta ebidentziak detektatu eta biltzeko aukera emango dioten tresnak eta estrategiak emateko. BAT taldeak antolatuko ditu ebidentziak biltzeko prozedura (prozesuan erabili beharreko tresnak eta baliabideak) eta ustez jazarpena pairatu duen ikaslea babesteko neurriak.

2. Urratsa.- Irakasle-taldearen bilera

Esku hartzeko eskariaren akta (0 eranskina) osatzen den unetik aurrera, gehienez **5 eskola-eguneko** aldi bat irekiko da, non ikastetxeko zuzendaritzak bilera baterako deia egingo baitie inplikaturako irakasle-taldeari eta, gutxienez, BAT taldeko kide bati. Testuinguru horretan, jakinarazitako ustezko eskola-jazarpenarekin lotutako egoeretan presente egon diren irakasleak ere kontuan hartuko dira.

Irakasle-taldearen bileran, BAT taldeak jasotako eskariaren berri emango du, kasuari buruzko informazio garrantzitsua eskatuko du, eta ebidentziak biltzeko prozesua eta ustezko biktima babesteko neurri espezifikoak antolatuko ditu. Era berean, bertaratutakoei jakinaraziko zaie A txostena egingo dela.

Bilera horren akta egingo da, eta ikastetxean geratuko da, Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskura.

3. Urratsa.- A txostena egitea eta familiei jakinaraztea

2. urratsean aipaturako bileraren ondoren, gehienez ere **15 eskola-eguneko** beste aldi bat irekiko da, kasua eragin duten gertakariei buruzko ebidentziak biltzeko. Nabarmendu gabe eta sistematikoki jokatu da, eta inplikaturak dauden ikasleen adina, heldutasuna edo gogo-aldartearen kontuan hartuta, haien kaltegarritasun izan daitezkeen edo kasuaren ebazpena zaildu dezaketen metodoak erabiltzea saihestuko da.

Eskola-jazarpena definitzen duten ezaugarriak kontuan hartuta, bildutako ebidentziak aztertuko dira eta balorazioa egingo da jazarpena badagoen ala ez. Badagoela ebatziz gero, haren tipologiari buruzko balorazioa ere egingo da. Funtsezkoa da erabakiak probatzeko moduko datu objektiboetatik abiatuta hartzea beti.

Bildutako informazioarekin eta azterketaren ondorioekin, zuzendaritzak A txostena osatuko du.



Behar izanez gero, denbora-tarte horretan ustezko biktima babesteko neurriak berrikusiko dira, haren segurtasuna bermatzen jarraitzeko eta, hala badagokio, eraso gehiago eragozteko.

Era berean, denbora-tarte horretan, jazarpena ustez pairatu duen ikaslearen familiarekin komunikazio eta koordinazio sistematikoa izan beharko da, egoera modu egokian kudeatzeko eta ikaslearen segurtasuna babesteko.

Jazarpena egon dela baloratu bada, portaera erasotzaileak izan dituzten ikasleen familiei banan-banan deitu beharko zaie, hartutako neurrien berri emateko eta egindako ekintzek izan ditzaketen ondorioak azaltzeko. Bilera horiek aurreratu edo atzeratu ahal izango dira baldin eta justifikatutako arrazoiak badaude, eta betiere erreferentziazko ikuskaria kontsultatu eta gero. Familiekiko bilerak modu bereizian egingo dira.

Familiekin egiten diren bilera guztien aktak (akta-eredua) egingo dira, bileraren helburuak, bertaratuak, ondorioak eta proposamenak adieraziz.

A txostena lantzeko epean zehar, bai Hezkuntzako Ikuskaritzak, bai laguntza-zerbitzuko aholkulariek, jardueren jarraipena egingo dute BAT taldearekin koordinatuta.

Hezkuntzako Ikuskaritzak, A txostena jaso eta aztertu ondoren, ontzat emango du edo txostena berrikusteko eta zuzentzeko eskatuko du, baldin eta jarduketak ez badira nahikotzat jotzen eta/edo ondorioa ez badago behar bezala justifikatuta. Kasuaren ezaugarrien arabera, erreferentziazko ikuskariak jarraipen zorrotzagoa egingo die BAT taldeak koordinatutako jardueri.

Laguntza-zerbitzuek alderdi hauei buruzko laguntza emango dute:

- Estrategien erabilera diagnostikorako, detekziorako eta datuak eta ebidentziak biltzeko.
- Inplikaturako ikasleekin eta familiekin egin beharreko esku-hartzeetarako materialak eta prozedurak.
- Dena delako eskola-jazarpeneko kasu zehatzaren ezaugarri bereziak.

4. Urratsa.- Hezkuntza-neurriak, eskola-jazarpenaren ebidentziarik aurkitu EZ bada.

A txostenaren arabera, EZ bada jazarpenik egon, BAT taldeak proposatuko du kasuari eman behar zaion hezkuntza-erantzuna, betiere elkarbizitza positiboa bultzatzera bideratuta. Horretarako, laguntza-zerbitzuaren laguntza izango du.

Erabakia A txostenean jasota geratuko da, dagokion atalean.

Jazarpenik dagoen ala ez alde batera utzita, zuzendariak erabakiko du jokabideak zuzentzeko prozedura ireki ala ez (201/2018 Dekretua), kontuan hartuta prozeduraren ondoriozko preskripzioak eta haren aplikazioak kasu guztietan duen asmo hezitzailea. Zeregin horretan, erreferentziazko ikuskariaren aholkularitza izango du.



5. Urratsa.- Jarduketa-plana, eskola-jazarpena izan dela baloratzen denean (B txostena).

A txostenean jazarpena egon dela adierazten bada, beste aldi bat irekiko da, non BAT taldeak esku-hartze berriak gidatuko baititu, helburu nagusi hauekin:

- Jarduketa-plan bat egitea inplikaturako ikasleekin edo, hala badagokio, ikasgela-taldearekin.
- Familiekiko komunikazioa mantentzea.
- Jazarpen-egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Helburu horietarako, B txostena egingo da. Txosten horretan, aipaturako elementuez gain, A txostena egin zenetik sortutako informazio gehigarria eta datu esanguratsuak jasoko dira.

Ikastetxeko zuzendaritzak gehienez **22 eskola-egun** izango ditu A txostena egin zenetik B txostena Hezkuntzako Ikuskaritzara eta Laguntzako Zerbitzuetara bidaltzeko.

Laguntza-zerbitzuak aholkularitza emango dio BAT taldeari, eta azalduko dio nola jardun behar duen jazarpenaren biktima izan den ikaslearekin, jazarpen-portaerak dituzten edo izan dituztenekin, jazarpen-kasuen lekuko izan direnekin eta familiekin. Kasuaren berezitasunak kontuan hartuta hala komeni bada, talde-gelaren elkarbizitza berrezartzera bideratutako esku-hartze espezifiko egingo da.

B txostenean jasotako jardueren jarraipena egingo du Hezkuntzako Ikuskaritzak.

6. Urratsa.- Bestelako instantziei jakinaraztea.

Larritasun bereziko kasuetan edo delitu-zantzuak daudenean, zuzendariak, Hezkuntzako Ikuskaritzaren aholkularitzarekin, zuzenean jakinaraziko dizkio Fiskaltzari gertatutakoak, edo familiari aholku emango dio izapidea berak egin dezan.

7. Urratsa.- Protokoloa amaitzea

Jazarpen-zantzuak irauten duten bitartean, beharrezkoa da jarduketa-planarekin jarraitzea, egoera zuzendu arte.

BAT taldearen balorazioaren arabera egoera bideratuta dagoela uste bada, zuzendaritzak amaitutzat eman ahal izango du protokoloa, eta idatziz jakinaraziko die hori erreferentziazko ikuskatzaileari eta dagokion elkarbizitza-aholkularitzari (akta-eredua).

LAUGARRENA.- HEZKUNTZA-EREMUAN JOKABIDE SUIZIDAREN AURREAN ESKU HARTZEKO ETA POSBENTZIOA EGITEKO ESTRATEGIA

Protokoloaren helburua da ikastetxeetako irakasleek eta hezkuntza-komunitateko gainontzeko kideek jakitea nola jardun jokabide suizidako balizko kasu baten aurrean. Helburua da tresna baliagarria izatea, suizidioarieta jokabide suizidari lotutako estigmari aurre egiteko eta osasun mental positiboa sustatzeko.



Protokoloa abian jarriko da ikastetxeak jokabide suizida duen ikasle bat behatu duen edo horren berri izan duen kasu guztietan (suizidio-ideiagintza, suizidio-komunikazioa, suizidio-saiakera edo -saiakuntza).

Oharpe orokorrak:

Datuen tratamendu konfidentziala

Ikasleen datuak konfidentziasunez tratatu behar direnez, jokabide suizida erakutsi duen ikaslearen eta aipatzen diren gainerako pertsonen izen-abizenen inzialak jasoko dira protokoloa aplikatzean sortzen den dokumentazioan.

Ikastetxeak, Hezkuntzako Ikuskaritzak eta laguntza-zerbitzuek datu horietarako sarbide mugatua eta segurua bermatu beharko dute, bai eta datu horiek ez zabaltzea ere, bereziki babestuak direlako.

Dokumentazioa ikaslearen eskolatzeko-aldia amaitu arte gordeko da, eta, ondoren, suntsitu egingo da.

Hezkuntzako Ikuskaritzaren eta laguntza-zerbitzuen eginkizunak.

Jokabide suizidako egoeretan, protokoloaren kudeaketa egokia bermatzera dago zuzenduta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eta laguntza-zerbitzuen arteko lan koordinatua.

- Alde batetik, Hezkuntzako Ikuskaritzaren ardura izango da gainbegiratzea protokoloa behar bezala aplikatzen dela, nahitaezko dokumentazioa betetzen dela eta Hezkuntza Ekintzarako Planean jasotako jarduketak gauzatzen direla.
- Bestetik, laguntza-zerbitzuak arduratuko dira BAT taldeei aholkularitza emateaz, protokoloa garatzeko egiten dituzten esku-hartzeetan.

Jardun-protokoloaren dokumentazioa.

Ikastetxeetan jokabide suizidaren aurrean jarduteko protokoloa aplikatzean dokumentazio hau sor daiteke:

- 1. eranskina. Jokabide suizida izateko arriskua duen ikasle baten kasuari buruzko jakinarazpena, Hezkuntzako Ikuskaritzari eta Laguntzako Zerbitzuei zuzendua.
- 2. eranskina. Krisi suizidari erantzuteko taldea.
- 3. eranskina. Krisi suizidari erantzuteko jarduketa-prozedura prestatzeko jarduketak.
- 4. eranskina. Familiaren baimena, Hezkuntza Saitetik kanpoko zerbitzuetako profesionalen artean koordinatzeko.
- 5. eranskina. Adin nagusiko ikasleen baimena, Hezkuntza Saitetik kanpoko zerbitzuetako beste profesional batzuekin koordinatzeko.
- 6. eranskina. Beste zerbitzu batzuetara bideratzeko txostena.
- 7. eranskina. Arrisku-egoeren jakinarazpena.
- 8. eranskina. Ikasleen segurtasun-plana.
- 9. eranskina. Krisian egindako esku-hartzearen erregistro laburra.
- 10. eranskina. Trantsiziorako eta Ikastetxerako itzulerako Plan Pertsonalizatua
- Hezkuntzako jarduketa-plana



Hezkuntzako Ikuskaritzara eta laguntza-zerbitzuetara bidaltzeko nahitaezko dokumentazioa

Hezkuntzako Ikuskaritzara bidaliko dira:

- Jokabide suizida izateko arriskua duen ikasle baten jakinarazpena, Hezkuntzako Ikuskaritzari eta Laguntzako Zerbitzuari zuzendua (1. eranskina). Jatorrizko dokumentua ikastetxean artxibatuko da.
- Familiaren baimena profesionalen artean koordinatzeko (4. eranskina) edo adin nagusiko ikasleen baimena beste profesional batzuekin koordinatzeko (5. eranskina). Jatorrizko dokumentua ikastetxean artxibatuko da.
- Jokabide suizidaren kasurako hezkuntzako jarduketa-plana. Jatorrizko dokumentua ikastetxean artxibatuko da.

Laguntza-zerbitzu guztietara bidaliko dira.

- Jokabide suizida izateko arriskua duen ikasle baten jakinarazpena, Hezkuntzako Ikuskaritzari eta Laguntzako Zerbitzuari zuzendua (1. eranskina). Jatorrizko dokumentua ikastetxean artxibatuko da.
- Jokabide suizidaren kasurako hezkuntzako jarduketa-plana. Jatorrizko dokumentua ikastetxean artxibatuko da.

Protokoloaren epeak.

Ikastetxeko zuzendaritzak gehienez **22 eskola-egun** izango ditu, 1. eranskina ematen denetik, jokabide suizidaren kasuan hezkuntzako jarduketa-plana egiteko.

Protokoloaren hasiera

Aipatutako protokoloa bi egoeratan aktibatuko da:

- a) Ikasleak suizidatzeaz hitz egiten duenean eta/edo suizidatzeko planak egiten dituenean; suizidatzearekin mehatxatzea, suizidatzea edo suizidatuz hiltzeko modu esplizituak bilatzea berehalako erantzuna eskatzen duten portaerak dira.
- b) Ikasleak arrisku suizidako faktoreak edo jokabideak erakusten dituenean: Aurretik izandako suizidio-saiakerak edo autolesio ez-suizidak, buru-nahaste ezaguna, senideen edo lagunaren jokabide suizidaren eraginpean berriki egon izana, jazarpenaren biktima edo erasotzailea izatea, sexu-abusuen edo tratu txar fisiko eta psikologikoen biktima izatea.

Protokoloaren garapena.

[Hezkuntza-eremuan jokabide suizidaren prebentzioa, esku-hartzea eta posbentzioa egiteko estrategia](#) da ikaslearekin egin beharreko esku-hartzea diseinatzeko eta abian jartzeko erreferentziatzko gida. Gida horrek orientabideak, jakinarazpen-ereduak eta erregistroak biltzen ditu, ikastetxeei esku-hartzea planifikatzen eta nahitaezko dokumentuak betetzen laguntzeko.

Ikastetxeko zuzendaritzak protokoloa abian jartzen dela bermatu eta haren garapena koordinatuko du, inplikaturako eragile guztien esku-hartzeen izaera hezitzailea ziurtatuz. BAT taldeak gidatuko ditu jokabide suizidako egoerei erantzuteko jarduketak. Jarduketa-prozedurak honako fase hauek ditu:

- **1. Urratsa.- Jokabide suizida izateko arriskua duen ikasle baten berri ematea Hezkuntzako Ikuskaritzari eta laguntza-zerbitzuei (1. eranskina).**

Komenigarria da ikastetxeko dinamikan hezkuntza-eragile guztien sentsibilizazioa sartzea, batez ere irakasleena eta ikasleena, jokabide suizidarekin lotuta egon daitezkeen komunikazioen eta alarma-seinaleen



inguruan. Halaber, komunikazio-kanalak ezarri behar dira, ikasleak ikastetxean duen egoerari buruzko informazio garrantzitsuak emateko.

Hezkuntza-komunitateko edozein kidek suizidio-komunikazioen berri badu edo ikasle batengan alarma-seinaleak antzematen baditu, horren berri eman beharko dio BAT taldeko arduradunen bati edo ikastetxeko irakasleren bati, eta horrek, bere aldetik, BAT taldeari jakinaraziko dio. Esku hartzeko premia atzematen denean, zuzendaritzak jokabide suizidaren protokoloari ekingo dio, eta ikaslearen ongizate emozionalera bideratutako neurrien berri emango dio familiari. Lankidetzeta estuan jarduteko eskatuko zaio, izan ere erantzukizuna partekatzea da inplikaturako adingabeari laguntzeko modurik egokiena.

Era berean, ikaslearen familia bera izan daiteke ikastetxera joan eta bertako kide bati —zuzendaritzako kide bati, BAT taldeko kide bati, irakasleari— bere seme edo alabari buruzko alarma-seinaleei edo komunikazio suizidei buruz duen kezka jakinarazten diona; kasu horretan, berdin jokatuko dugu.

Beharrezkoa bada Hezkuntza Sailekoak ez diren beste zerbitzu batzuekin koordinatzea, honako hauek beteko dira: Familiaren baimen informatua (4. eranskina) edo adin nagusiko ikaslearen baimen informatua (5. eranskina).

- 2. Urratsa.- Segurtasun-plana (8. eranskina)

Ikasleak egingo du plan hori, erreferentziazko pertsonarekin batera. Plana jokabide suizidaren ezaugarriei eta ikaslearen bilakaerari egokituko zaie.

- 3. Urratsa.- Hezkuntza Ekintzarako Plana egitea

Plana egitean, kontuan hartuko dira hezkuntza-eremuan jokabide suizidaren prebentzioa, esku-hartzea eta posbentzioa egiteko estrategiaren gidaren eranskinak, beharrezkoak direnak ikasle bakoitzaren egoerari hezkuntza-erantzuna antolatzeko. BAT taldeak gidatuko du jarduketaren plan hori, helburu hauekin:

- Arrisku-faktoreak eta babes-faktoreak, hezkuntza-arloko esku-hartzerako hartu diren neurriak, ikaslearen segurtasun-plana eta jokabide suizidako egoeraren jarraipena eta ebaluazioa.
- Familiekiko komunikazioa eta koordinazioa mantentzea.

Ikastetxeko zuzendaritzak **22 eskola-egun** izango ditu dokumentu hori egiteko, 1. eranskina egin zenetik.

Protokolo honi lotutako gainerako eranskinak egokitasunaren arabera erabiliko dira. BAT taldeak erabakiko du horietatik zein erabili, kasuaren arabera:

- 6. eranskina: Hezkuntza Sailekoak ez diren beste zerbitzu batzuetara bideratzeko txostena
- 7. eranskina: Arrisku-egoeren jakinarazpena
- 9. eranskina: Krisian egindako esku-hartzearen erregistro laburra
- 10. eranskina: Trantsiziorako eta Ikastetxerako itzulerako Plan Pertsonalizatua

BOSGARRENA.- INFORMAZIOAREN TRANSMISIOA HEZKUNTZA-IRAGATEETAN

- Eskola-jazarpeneko protokoloari dagokionez: jazarpenaren biktima beste ikastetxe batera joaten bada eta kasua ixteko eranskinik ez badago, jatorrizko ikastetxeko zuzendaritzak ziurtatuko du Ongizatearen eta Babesaren koordinatzaileak helmugako ikastetxera helarazten duela B txostenean jasotako informazioa, inplikaturako ikasleari behar duen babesa bermatzeko.




- Hezkuntza eremuan jokabide suizidaren aurrean esku-hartzeko eta posbentzioa egiteko protokoloari dagokionez, jatorrizko ikastetxeko zuzendaritzak ziurtatuko du Ongizatearen eta Babesaren koordinatzaileak hezkuntzako jarduketa-planean jasotako informazioa helarazten duela, inplikaturako ikasleari behar duen babesa bermatzeko.

MARIA BEGOÑA
PEDROSA
LOBATO -
30680524L

Firmado digitalmente
por MARIA BEGONA
PEDROSA LOBATO -
30680524L
Fecha: 2024.03.12
15:49:22 +01'00'



ESKOLA-JAZARPENEN PROTOKOLOAREN URRATSEN ESKEMA



**EAE-KO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXEETAN
ESKOLA-JAZARPENEO EGOERETAN JARDUTEKO
PROTOKOLOAREN ERANSKINAK:****0. ERANSKINA
ESKU-HARTZE ESKARIARI BURUZKO AKTA**

Eskariaren jatorria (X batekin adierazi)

Familia	
Bestelakoak	

Adierazi eskariaren jatorria
(irakasleak, irakasle ez diren langileak,
pediatrak, etab.)**1.- IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

2.- USTEZKO BIKTIMAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Izen-abizenen inizialak	
Generoa	
Adina	
Maila/Taldea	

3.- AZALDUTAKO GERTAKARIAK

Ahalik eta zehaztasun handienaz transkribatuko dira eskaria egiten duen pertsonak adierazitako gertakariak. Ustez inplikaturik dauden ikasleak inizialen bidez identifikatuko dira.



4.- USTEZKO BIKTIMAREN SEGURTASUNA BERMATZEKO ZUZENDARITZAK HARTUKO DITUEN NEURRIAK ETA EBIDENTZIAK BILTZEKO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA

....., 20.....koren

Ikastetxeko zuzendaria

Eskatzailea

Sin.:

Sin.:

Eskaria egiten duen pertsonak ez ditu zabalduko akta honetan jasotako informazioak, ez eta bileran aztertutako gaiak ere (Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren 7. artikulua).

**IRAKASLE-TALDEAREN BILERAREN AKTA****1.- IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Ustezko biktimaren izen osoa eta abizenen inizialak	

2.- BILERARA BERTARATUAK

Izen-abizenak	Kargua*	Izenpea

* Adierazi nor den BAT taldeko kidea



3.- KASUARI BURUZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA

Atal honetan, bilerara bertaratutako pertsonak emandako informazioa sartuko da. Nahitaezko konfidentzialtasuna bermatuko da aipatutako gaiei buruz, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutakogai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla.

4.- HARTUTAKO ERABAKIAK

Berariaz adieraziko dira ebidentziak biltzeko prozedurari buruz hartutako erabakiak, bai eta ustezko biktimari zuzendutako babes-neurri espezifikoei buruzkoak ere.

..... (e)n, 20..... (e)ko ren (e)an

Zuzendaria

Sin.:

OHARRAK: Gehienez ere bost eskola-egun igaroko dira gertakariak jakinarazten direnetik bilera egiten den egunera arte.



AKTA

1.- BILERARA BERTARATUAK

2.- BILERAREN HELBURUAK

3.- ERABAKIAK, ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

.....(e)n, 20....(e)koren(e)an.

Zuzendaria

Bertaratuak

Sin.:

Sin.:

Bileran egon diren pertsonak ez dituzte zabalduko akta honetan jasotako informazioak, ez eta bileran aztertutako gaiak ere (Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren 7. artikulua).

OHARRAK:

- Ustez inplikaturik dauden ikasleak inzialen bidez identifikatuko dira.
- Aurkeztutako datuen zein pertsonak ematen dituzten datuen konfidentziasuna mantentzeko, zuzendaritzak haien seme-alabei buruzko informazioa baino ez die emango familiei, eta inoiz ez inplikaturik gainerako ikasleei buruzkoa.

**A TXOSTENA****1.- IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

2.- HASIERAKO INFORMAZIOA¹**- Inplikaturako ikasleen identifikazio datuak**

a) Ustezko biktima:

	Ikaslea
Izen eta abizenen inizialak	
Generoa	
Adina	
Maila eta taldea	

b) Salatutako jokabidearen ustezko eragileak

	Ikasleak		
Izen eta abizenen inizialak			
Generoa			
Adina			
Maila eta taldea			

- Ustezko jazarpena gertatu den lekua

--

- Lekukoak, baleude (inizialak erabili)

--

¹Nahitaezko konfidentzialtasuna bermatuko da izapideetan eta ikerketetan, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla.



- Informazio osagarria

	X batekin adierazi
Txosten medikoa dago. Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Salaketa jarri da polizian, epaitegietan edo Fiskaltzan. Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Arartekoari kexa aurkeztu diote. Ikastetxeak ba al dauka kexaren kopiarik?	

3. IKASTETXEAK LORTUTAKO INFORMAZIOA

Ikastetxeak bildutako datuak eta ebidentziak, esku hartzeko eskaria oinarri hartuta.

Zehatz-mehatz eta objektiboki deskribatuko dira datuak eta ebidentziak, pertsona hauengandik eta metodo hauen bidez jasotakoak:

- Ustezko biktima: behaketak, elkarrizketak erreferentziako pertsonarekin, banakako tutoretzak, Pikas metodoan oinarritutako elkarrizketak, autotxostenak, autonarrazioak, etab.
- Ikasgelako ikasleak: heterotxostenak, banakako tutoretzak, postontzia, etab.
- Lekukoak: behaketak, banakako tutoretzak, Pikas metodoan oinarritutako elkarrizketak...
- Jazarpen-jokabidearen ustezko erantzuleak: oharrak, banakako tutoretzak, elkarrizketak erreferentziako pertsonarekin, Pikas metodoan oinarritutako elkarrizketak...
- Familiak (ustezko biktimarenak eta jazarpen-jokabidearen ustezko erantzuleenak): elkarrizketak, bilerak...
- Irakasleak eta irakasle ez diren langileak: triangulazio-bilerak



4. INFORMAZIOAREN AZTERKETA

Ondorio garrantzitsuak, aurreko atalean jasotako ebidentzietatik abiatuta

Empty rectangular box for content.

5. **JAZARPENIK DAGOEN ALA EZ BALIOESTEA, JASOTAKO EBIDENTZIETAN OINARRITUTA**

Erantzun bakoitzaren argudiaketa arrazoitua.

- **Ba al dago botere-desorekarik edota babesgabetasunik?**

Kontuan hartuta jazarpen-jokabidea duten pertsonen kopurua, beldurrarazte-maila...

- **Ba al dago mina eragiteko intentziorik?**

Umiliatzeko asmoa kontuan hartuta (erasoak jendaurrean gertatzen diren...)

- **Ba al dago pertsonalizaziorik?**

Ez dago pertsonalizaziorik, baldin eta erasoak bereizi gabe eta intentsitate berarekin gertatzen bazaizkio edozein ikasleri.

- **Ba al dago errepikapenik?**

Errepikapena kontsideratzen da eraso denboran zehar mantentzen denean. Ziberjazarpenaren kasuan ere errepikapentzat hartzen da, behin bakarrik gertatu bada ere, kontrolik gabeko eraso biderkatzeko erraztasunagatik.

Horregatik guztiagatik, jazarpena dagoela ondorioztatzen da?

JAZARPENA DAGO	X batekin adierazi
BAI	
EZ	



Uste izanez gero JAZARPEN kasua dela, haren ezaugarriak adierazi behar dira beheko taulan.

	Ez	Bai	Puntuala	Errepikatua
1. Gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa – Norbait aintzat ez hartzea (pasiboa). – Ez uztea parte hartzen (aktiboa).				
2. Hitzezko eraso – Norbait iraintzea (zuzena). – Norbaiti buruz gaizki esaka aritzea (zeharkakoa) – Goitizenak jartzea (mistoa).				
3. Zeharkako eraso fisikoak – Norbaiti gauzak ezkutatzea – Norbaiti gauzak puskatzea – Norbaiti gauzak lapurtzea				
4. Eraso fisiko zuzenak – Norbait jotzea.				
5. Larderia/xantaia/mehatxua – Norbait mehatxatzea beldurrarazteko – Gauzak egitera behartzea – Armekin mehatxatzea				
6. Sexu-jazarpenera edo -abusua eta/edo jazarpenera sexista – Sexualki jazartzea edo beldurtzea – Sexu-abusua gauzatzea – Inor modu sexistan beldurtzea, beheratzea, umiliatzea, mintzea edo zirikatzea.				
7. Ziberjazarpenera – Mugikorraren, e-mailaren, sare sozialen, WhatsApparen eta abarren bidez mezuak bidaltzea norbait mehatxatzeko, iraintzeko edo iseka egiteko. – Grabazioak egitea mugikorrarekin egoera iraingarrietan edo intimitatea urratzen dutenetan (adibidez: sexting), eta lagunen artean edo Interneten zabaltzea.				
8. LGTBIQ+ fobiako ekintzak - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea LGTBIQ+ pertsona izateagatik. - Hitzezko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak - Larderia/xantaia/mehatxuak LGTBIQ+ pertsona izateagatik				
9. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleentzako erasoak, dituzten ezaugarriak direla-eta - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea - Hitzezko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak - Larderia/xantaia/mehatxua				
10. Eraso arrazistak - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea - Hitzezko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak - Larderia/xantaia/mehatxua				



6. HEZKUNTZA-TRATAMENDUA

6.1 Jazarpenik EZ dagoenerako Hezkuntzako jarduketa-plana

Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den.

Honako hauek kontuan hartuta zehaztuko da:

- 1.- Jarduketa-ildo espezifikoak
- 2.- Arduradunak
- 3.- Tenporalizazioa
- 4.- Jarraipena eta ebaluazioa
- 5.- Familiekin komunikatzeko prozedura

6.2 Jazarpena baldin BADAGO

Biktimaren babesa bermatzeko, hasierako fasean aurreikusitakoez gain, beste neurri batzuk ere zehaztu ahal izango dira. Inplikaturako gainerako ikasleekin hartutako neurriak ere deskribatuko dira. Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den.



7. FAMILIEKIN KOMUNIKAZIOA

Datak, prozedurak, edukia, akordioak, etab.

.....(e)n, 20.....(e)ko(a)ren (e)an

Zuzendaria

BAT taldeko kideak

Sin.:

Sin.:

**B TXOSTENA: HEZKUNTZAKO JARDUKETA-PLANA****1. IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Biktimarenizen eta abizenen inizialak	

2. ATXOSTENA IGORRI ONDOREN ESKURATU DEN INFORMAZIO OSAGARRIA ETA DATU ESANGURATSUAK

Bileretatik, elkarrizketetatik, gelan oharmandakotik, beste toki batzuetatik edota beste iturri batzuetatik bildutako informazio berriaren deskripzioa.



3. JARDUKETA-PLANA

Kasuaren jarraipenaz arduratuko den taldea

Hezkuntza-jarduketak

- Biktimarekin

- Jokabide jazarlea duten ikasleekin

- Ikasle ikusleekin edo, hala badagokio, ikasgelako taldearekin



Beste jarduketa batzuk

- Familiekin

- Irakasleekin

Ziberjazarpen kasuetarako jarduketa espezifikoak



4. BILERAK FAMILIEKIN

Datak, bertaratuak, bileraren helburuak eta ondorioak eta bileretan hartutako erabakiak.

5. JAZARPEN EGOERAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Jarduketa-planaren jarraipena: prozedura, jarraipen-datak eta arduradunak.

Jarduketa-planaren eta egindako esku-hartzeen ebaluazioa.

Hezkuntzako Ikuskaritzari kasuaren jarraipenari buruzko informazioa emateko prozedura eta maiztasuna.

.....(e)n, 20.....(e)ko(a)ren (e)(a)n

Zuzendaria

BAT taldeko kideak

Sin.:

Sin.:



HEZKUNTZA EREMUAN JOKABIDE SUIZIDA PREBENITZEKO, ESKU-HARTZEKO ETA POSBENTZIOA EGITEKO PROTOKOLOAREN ERANSKINAK

1. ERANSKINA: JOKABIDE SUIZIDA IZATEKO ARRISKUA DUEN IKASLE BATEN JAKINARAZPENA, IKUSKARITZARI ETA LAGUNTZAKO ZERBITZUEI ZUZENDUA¹

Ohar orokorrak

Eranskin hau eta honetatik eratorzen diren prozedura eta planak honako bi egoera hauek ematen direnean abiatuko dira:

- Gure ikastetxeko ikasle bat bere suizidioz hitz egiten badu eta/edo suizidio planak egin baditu.
- Ikasleak jokabide suizidarekin lotutako alarma-seinale bat erakusten badu. Arrisku faktore ohikoenak hauek dira: aurreko suizidio-saioa egin izana, autolesio ez-suizidak egiten baditu, familiarterko lagun baten jokabide suizidaren eraginpean badago, bullying biktima edo erasotzailea bada, sexu-abusuen edo tratu txar fisiko eta psikologikoen biktima bada edo jokabide jazartzailea badu. (*"Hezkuntza-eremuan Jokabide Suizidaren prebentzioa, esku-hartzea eta posbentzioa egiteko estrategia" 2022*).

Jakinarazpen dokumentu hau erreferentziatzko ikuskariari bidaliko zaio. Era berean, laguntza-zerbitzuen kasuan, helbide elektronikoko honetara bidaliko da: bnbizikidetza.bizikasi@berritzeguneak.eus.

IKASTETXEA:	KODEA:
LURRALDEA ETA HERRIA:	IKASTURTEA:
<p>Gertaeren deskribapena:</p> <p>Ikastetxeak nola izan du egoeraren ikaslearen egoeraren deskribapen ahalik eta zehatzen, honako egoerak kontutan izanda:</p> <p>Komunikazio edo mehatxu suizida: hitzez, idatziz, sare sozial batean...</p> <p>Autolesio-ez suizida: Non, nola, nor konturatu den...</p> <p>Saiakera suizida: Non, nola, nor konturatu den...</p>	
Egoera jakinarazi duen pertsona:	



Arriskuan dagoen pertsonaren identifikazioa (izena eta abizenak inizialekin, etapa, maila, adina eta generoa):

Hiru inisial ipintzea komeni da.

- 1 Jakinarazpena erreferentziazko ikuskariari bidaliko zaio. Era berean, laguntza-zerbitzuen kasuan, helbide elektroniko honetara bidaliko da: bnbizikidetza.bizikasi@berritzeguneak.eus

**Informazio garrantzitsua:**

Gehigarria izan daitekeen informazio esanguratsua adieraziko da: arrisku faktore ezagunik dagoen (kideekin harremanak, familia mailako arriskurik, ...) edo beste informazio aipagarririk.

Kontutan hartu beharreko ohiko aldagaiak hauek izan daitezke:

- HLBPko ikaslea izatea
- Osasun Mentaleko eskuhartzea jasotzea
- Gizarte Zerbitzuak edo Aldundiko eskuhartzea jasotzea
- Gurasoen banaketa konplexua bizi izatea
- Dolua prozesuren bat bizi izatea
- Medikazioa hartzea
- Ikaslearen jatorria (komunikazio arazoak, kultura desberdina, arrazismoa)
- Autolesioak egin izana
- Ingresatuta egon izana
- Jazarpena bizi izana (biktimizatua ala jokabide jazartzailea)
- Jokabide krisialdiak izatea
- Adikzioak (sustantzia edo sustantziarik gabekoak)
- Indarkeria matxista biktima edo eragile izatea (eraso sexualak, bortxaketa...)
- Nahasmenduak izatea (elikadura, loa, esfiterrak, depresioa, antsietatea).

Hartzen ari diren neurriak:

Ikaslearen hobebeharrez hartu diren behin-behineko neurriak adieraziko dira: Ikaslearen zaintzari zuzendutakoak, komunikaziozkoak (familia, beste zerbitzu batzuk...), erreferentzialtasunaren eskaintzari dagozkionak eta abar.

Oharrak:

.....(e)n, 20....(e)koaren(e)(a)n

Zuzendaria

Sin.



2. ERANSKINA: KRISI SUIZIDARI ERANTZUTEN TALDEAREN OSAERA

Krisi suizidari erantzuteko ikastetxeko taldea¹ honako hauek osatuko dute:

- Ikastetxeko zuzendaria
- Aholkularitza- edo orientazio-taldea
- Ikasleen ongizatearen eta babesaren koordinatzailea
- Tutorea

Taldeak Krisi Suizidari Erantzuteko Taldearen koordinatzaile bat izendatuko du, eta pertsona hori izango da esku-hartzearen ardatz transmititzailea.

Krisi Suizidari Erantzuteko Taldearen koordinatzaileak artekari-lanak egingo ditu amarekin, aitarekin edo legezko tutorearekin, eta, dagokion baimena eskuratuta, ikastetxeak mediku-zerbitzuekin edo osasun mentaleko zerbitzuekin eta oinarrizko gizarte-zerbitzuekin duen lotura ere izango da.

¹ BAT taldea konfiguraturata dagoen zentroetan, talde horrek gidatuko du krisi suizidako egoeren erantzuna.



3. ERANSKINA: JOKABIDE SUIZIDAREN ARRISKUA DUTEN IKASLEEN KRISI SUIZIDARI ERANTZUTEKO JARDUKETA-PROZEDURA LANTZEKO JARDUKETAK¹

1. Krisi suizidari erantzuteko talde bat sortzea (ikus 2. eranskina), erantzuteko jarduketa-plana sortu, aplikatu eta ebaluatzeko. Oinarrizko Hezkuntzaren eta Batxilergoko etaparen kasuan, talde horrek BAT taldearekin koordinatuta jardungo du. Lanbide Heziketaren kasuan, taldeko tutorea, ikasketa-buruarekin batera, eta, Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen kasuan, zuzendari operatiboa. Taldea nor koordinatuko duen erabakiko da.
2. Prozedura bat zehaztea, ikaslea gainbegiratu gabe egon ez dadin, batez ere jolasaldietan, klaseen artean, edo ikasgela, gimnasio eta/edo laborategietarako joan-etorrietan.
3. Zerbitzu osagarriak garatzen diren lekuetan (jolastokia, jangela) irakasleen/arduradunen zaintza ezartzea. Konfidentzialtasuna funtsezkoa da, eta, beraz, ez da sakoneko arrazoia ezagutaraziko; aitzitik, azalduko da egoera ahulean dagoen ikaslea dela eta ikastetxeko esparru guztietan laguntza behar duela.
4. Ikasleak erabiltzen dituen espazioek eta materialek eragin ditzaketen arrisku-egoerak aztertzea, eta bitarteko hilgarriarako irisgarritasuna mugatzea.
5. Zorrotz kontrolatzea ikaslearen bertaratzea, eta justifikatu gabe huts eginez gero, berehala jakinaraztea familiari edo legezko tutoreei, arrisku-egoerak irauten duen bitartean.
6. Eguneroko harrera- eta agur-ohiturak ezartzea, bizi-tonua baloratzeko. Balizko azkartzaileak bilatzea (egoera-krisi akutuak eta bizi-esperientzia estresagarriak). Arrisku handia baloratu bada, familiarekin (adin nagusiko ikasleen kasuan, eragindako pertsonaren baimenarekin betiere) ikastetxera eta ikastetxetik lagun egitea adostu behar da.
7. Krisi suizidan oinarrizko prestakuntza duten eta ikaslearekin harremana duten irakasleek eta ikasleek, esku-hartze taldearekin batera, osatzen dute laguntza-zirkulua. Oinarrizko prestakuntzaren helburua izango da alarma-seinaleak eta jarduteko jarraibide nagusiak detektatzea, ikasleentzat: nola eta non eskatu laguntza, hau da, zer pertsona helduri jakinarazi alerta-seinale bat detektatzen dutenean edo arrisku-egoera bat hautematen dutenean.
8. Babes-neurriak ezartzea ikastetxeak kudeatutako *e-learning* plataformetan, blogetan eta abarretan.
9. Sare sozialetan egon daitezkeen arrisku-egoeren detekzioa eta jarraipena sustatzea. Ildo horretan, funtsezkoa izango litzateke Berdinen arteko Laguntza Sistemak izatea edo sortzea.
10. Ikasleak kalitatezko komunikazio-prozesua gauzatzeko erreferentziatzeko pertsona bat aukeratzea, sufrimenduaren kudeaketa emozionala eta jarduketa-planaren eta haren jarraipenaren parte-hartze aktiboa eta baimena bermatzeko.
11. Familiarekin eta ikaslearekin batera, segurtasun-plan bat aukeratzea (adin nagusiko ikasleen kasuan, eragindako pertsonaren baimena jaso ondoren), eta, horretarako, elkarren artean (familia, ikaslea) biltzeko plan bat ezartzea, baita ikaslearekin topaketa pertsonalizatuak egiteko plan bat ere.



12. Familiari (adin nagusiko ikasleen kasuan, eragindako pertsonaren baimena jaso ondoren) eta ikasleari laguntzeko prozesua kontuan hartzea, egoerari buruzko informazio garrantzitsua jasotzen baita.
13. Esku-hartze taldeak arriskuko leku-denborak eta egoerak identifikatzea.
14. Detektatutako arrisku-egoera gehienetan erreferentziazko figurak edo laguntza-zirkuluko pertsonak daudela bermatzea. Beraz, ahalik eta leku gehienetan ikaslea ez da bakarrik egongo.
15. Errekuperazio pertsonalerako espazio egokia izendatzea: Arnasgunea. Ikastetxe bakoitzak leku bat esleituko du kasu horietan erabiltzeko.
16. Jarduketa integratu bat ezartzea osasunaren arloko profesionalekin edo beste batzuekin, ikaslearen familiaren baimenarekin.
17. Baimen informatuari buruzko dokumentuak, gorabeheren erregistroak eta familiarekin, zentroko zuzendaritzarekin, ikuskaritzarekin, Osakidetzarekin edo Ertzaintzarekin komunikatzeko ohiko eta premiazko tresnak edukitzea.
18. Beharrezkoa den informazioa eskuratzeko aukera duten pertsonen kopurua mugatzea.
19. Talde-kohesioa eta trebetasun sozialak eta ikasgeletako bizitzarako trebetasunak lantzeko jarduerak garatzea. *Bizikasi* materialak egokiak dira horretarako, batez ere *Mindfulness*-arekin lotutako jarduerak, eta 1. eta 2. multzoak, talde-kohesioari eta gizarte-trebetasunetako lanari buruzkoak.

**4. ERANSKINA: FAMILIAREN BAIMEN INFORMATUA**

Eranskin hau, hezkuntza eremukoa ez den eragile batekin koordinatzeko ikastetxeak behar duen baimena da. Ikaslea adin-txikikoa (18 urte baino gutxiago) denean erabiliko da eta gurasoek sinatu beharko dute.

Izen-abizenal:
 (NAN) eta
 Izen-abizenak:
 (NAN)
 Helbidea:
 Telefonoa:
 udalerian dagoen
 ikastetxeko
 ikaslearen aita, ama edota tutoreak

BAIMENA EMATEN DIET/DIEGU hezkuntza-administrazioko profesionalei gure alaba edo semearengan kezkatzen gaituzten egoerak eta jokabideak prebenitzen eta horietan esku hartzen lagunduko duten beste instantzia profesional batzuekin (osasun- eta gizarte-esparrukoekin) koordinatzeko, informazioa trukatzeko eta jarduketak gauzatzeko, betiere Europako Parlamentuaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Hezkuntzaren Eremuan Datuak Babesteari buruzko Erregelamendu Orokorrak (2021) araututako konfidentziasunari eutsiz.

.....(e)n, 20....(e)koaren.....(e)(a)n

IKASLEAREN AMAREN/AITAREN/LEGEZKO TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK:

Sin.

**5. ERANSKINA: ADIN NAGUSIKO IKASLEAREN BAIMEN INFORMATUA**

Eranskin hau, [hezkuntza eremukoa ez den eragile batekin](#) koordinatzeko ikastetxeak behar duen baimena da. Ikaslea adin-txikikoa (18 urte baino gutxiago) EZ denean erabiliko da eta ikasleak sinatu beharko du.

Izen-abizena:

(NAN

Helbidea:.....

Telefonoa:.....

..... udalerian dagoen

..... ikastetxeko

ikaslea

BAIMENA EMATEN DIET hezkuntza-administrazioko profesionali kezkatzen nauten egoerak eta jokabideak prebenitzen eta horietan esku hartzen lagunduko duten beste instantzia profesional batzuekin (osasan- eta gizarte-esparrukoekin) koordinatzeko, informazioa trukatzeko eta jarduketak gauzatzeko, betiere Europako Parlamentuaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Hezkuntzaren Eremuan Datuak Babesteari buruzko Erregelamendu Orokorrak (2021) araututako konfidentziasunari eutsiz.

.....(e)n, 20....(e)koaren.....(e)(a)n

IKASLEAREN IZENA ETA SINADURA

Sin.


ISILPEKOA / CONFIDENCIAL - BAKARRIK FAMILIAREN BIDEZ / SOLAMENTE A TRAVES DE LA FAMILIA
**6. ERANSKINA: BESTE ZERBITZU BATZUETARA BIDERATZEKO
TXOSTENA: ≥ 6 URTE**
IKASLEAREN DATUAK / DATOS DE LA ALUMNA O DEL ALUMNO

Izen-abizenak: Nombre y apellidos:	Jaiotze-data: Fecha de nacimiento:	
Egungo Ikastetxea: Centro Actual:	Maila: Nivel:	Telefonoa/Teléfono:
Tutorea: Tutora/Tutor:	Emaila: Email:	

AURKEZTEN DITUEN ZAILTASUNAK / DIFICULTADES QUE PRESENTA

Kurrikulum-esparrua: Ámbito curricular:	Irakurmena, Idazmena, Kalkulua, problemen ebazpena. Lectura, escritura, cálculo, resolución de problemas,...
Hizkuntza eta Komunikazioa: Ámbito del Lenguaje y la Comunicación:	Ahozkoa/ez ahozkoa, komunikazio-asmoa, Hizkuntza alternatiboa. Verbal/no verbal, intención comunicativa, lenguaje alternativo, referencia conjunta,....
Funtzio beterazleak: Ámbito de las Funciones Ejecutivas:	Jarduera, arreta eta kontzentrazioaren erregulazioa, memoria... Regulación de la actividad, de la atención, de la concentración, memoria,...
Garapen sozioafektiboa: Ámbito Socioafectivo:	Beldurrak, ziurtasun-eza, gogo-aldarte, bakartzea, ukatzeak, gizarte-trebetasunak... Miedos, inseguridades, estado de ánimo, aislamiento, rechazo, habilidades sociales,...
Detekzio espezifikoak: Detección específica:	Aplikaturako frogen edota erabilitako tresnen emaitzak... Resultados de pruebas o instrumentos utilizados

EGOKITZE-NEURRIAK ETA LAGUNTZAK / MEDIDAS DE ADAPTACIÓN Y APOYOS

Kurrikulum-esparrua: Ámbito curricular:	Erregularatasuna, absentismoa, errepikapenak, eskolatzeko hasieraren atzerapena... Regularidad, absentismo, repeticiones, retrasos en el inicio de la escolarización...
Egokitzapen/Inguruak: Adaptac./Entornos:	PDI-BGP, NCE-ACI, HIBP-PIRE, HBSP-PREE, PCE-EOP, ZIG-AAT....

**7. ERANSKINA: ARRISKU-EGOEREN JAKINARAZPENA**

Gizarte Zerbitzuetara arrisku egoera baten berri emateko txantiloia da. "Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoeretarako eta hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzeta eta koordinaziorako" protokolo II.1 eranskina da.

HAURTZARO ETA NERABEZAROKO ARRISKU-EGOERAK JAKINARAZTEKO FITXA

Data:

EGOERA JAKINARAZTEN EDO BIDERATZEN DUEN PERTSONAREN DATUAK

Izen-abizenak		Zerbitzua
Kargua edo lanpostua		Telefonoa
Zuzendaria	Faxa	Helbide elektronikoa

ADINGABEEN DATUAK

Izen-abizenak	Jaioteguna	Generoa	Nazionalitatea

ADINGABEEN HELBIDEA

Zein da haien ohiko helbidea?
Non daude orain?

ADINGABEEN DATUAK

Izen-abizenak	Senidetasuna	Zuzendaria	Telefonoa

BESTE SENIDE BATZUK

Izen-abizenak	Senidetasuna	Zuzendaria	Telefonoa



Jakinarazpenaren arrazoia (deskribapen laburra). Noiztik dugu egoera honen berri eta zermaiztasunekin gertatzen da?

- Kalte- edo ondoez-adierazleak haurrengan (fisikoak, jarrerari dagozkionak, garapen kognitiboari dagozkionak, berdinekiko eta helduekiko harremanetan ikusitakoak...).
- Familiari eragiten dioten beste arazo esanguratsu batzuk.
- Amak, aitak, tutoreak edo zaintzaileak haurrekin duten portaera.

- Adingabearen arduradunen eta jakinarazpena egiten duen ikastetxearen/profesionalaren arteko harreman mota
- Jakinarazpena egin duen ikastetxeak/profesionalak arazo honen harira egindako jarduketak (gurasoekin, haurrekin beste erakunde batzuekin...) eta lortutako emaitzak

Arduradunek badute jakinarazpen honen berri? Nola erreakzionatu dute informazio hori jasotzean? Gizarte-zerbitzuek emandako laguntza jasotzeko prest daude? Arazo/zailtasunaren kontzientzia maila.



Aintzat hartzen den bestelako informazioa.

.....(e)n, 20....(e)koaren.....(e)(a)n

IZENA ETA SINADURA

Sin.:



8. ERANSKINA: IKASLEAREN SEGURTASUN-PLANA

Dokumentu hau ikaslearekin batera betetzeko da, arnagune bezala aukeratutako gelan/espazioan. Ikaslearentzako zaila izan daiteke, egoera batzuk adieraztea, beraz, erreferentziako pertsonak espazioa eta denbora emango dizkio, konfiantzazko giro batean dokumentuaren atal desberdinak betetzen joateko.

Betetzearen helburua bikoitza da:

- Alde batetik, idatziz izango du krisi egoera baten aurrean nola jokatu. Momentu horietan noraezean egon daiteke eta hartzen dituen erabakiak ondoezak harrapatuta hartu ohi ditu. Segurtasun Planaren helburua da, erabakiak era eraginkor batean hartu ahal izatea.
- Bestalde, jokabide suizida duen pertsona batentzat plana betetzeko martxan jartzen duen prozesu dialektikoak izugarriko garrantzia du. Ikaslea bere ondoezaz kontzienteago egiten da, egoeraz jabetzera eramaten du, introspektzioa ahalbidetzen da eta barnean dituen emozioak adierazteko aukera ematen zaio, epaiketarik gabe, emozioak baliozkotzen, drenaia moduan.

Aipatzekoa da, baita ere, Segurtasun Plana ez dela solik ikastetxean dagoenerako, bere egunerokotasunean erabiltzeko baizik. Egunero gerta dakizkion egoerak ere aurreikustea komeni da.

Segurtasun Plana ikaslearena da, hortaz, berarekin batera izateko aukera emango diogu, mugikorrean argazki bat izanda edota eskala txikiagoko paper batean poltsikoan.

Jokabide Suizida duten ikasleen egoeran, testuinguruak asko baldintzatzen du eta azken hau oso aldakorra izaten da. Aldagai anitz daude, baina baldintzatzaileena pertsonak dira: profesionalak, kideak, lagunak, familia... Pertsona horien eta ikaslearen arteko harremana aldatzen joan daiteke (gelako kide bat besterik ez zena, lagun mina izatera pasa daiteke, edota psikologoak aldatu dezake) eta jarritako telefonoak aldatu ditzake. Honek isla izan beharko du Segurtasun Planean. Beraz, plana dinamikoa izango da eta aldiro-aldiro ikaslearekin birpasatu beharko da beharrezko aldatetarako egite aldera.

ALARMA-SEINALEAK ETA ARRISKU-UNEAK:

Zer pentsamendu, sentimendu edo jarrera izaten ditut gaizki sentitu aurretik? Ba al dago arrisku hori areagotzen duen egoerarik?

(Adib.: Urduriago egotea, suminkor egotea, bakarrik egoteko gogo handiagoa izatea, etsipena, lo ezina, ezinegona, kontrola galtzen dudala sentitzea, data garrantzitsuen hurbiltasuna, pertsona garrantzitsuekin eztabaidak izatea...)

Nola dakit arriskuan egon naitekeela? Zein seinaleen bitartez identifikatu dezaket? Emozio horren intentsitatea neurtzen laguntzeko estrategiak eskaintzea komeni da (zenbaki eskalak, koloreak...). Intentsitatea igo egiten duen aldagaririk aurreikusten al du?

**ZER JARDUERAK LAGUNTZEN DIDATE HOBETO SENTITZEN?**

Zer egin dezaket entretenitzeko eta egoera hobeto kudeatzeko? Zer estrategiak lagundu didate hobeto sentitzen beste batzuetan?

(Adib.: Paseatzea, kirola egitea, erlaxazio-teknikak egitea, arnasketa sakonak egitea, musika entzutea...)

Krisi egoera baten aurrean zer egin dezaket krisi horretatik irteten hasteko? Ikasle batzuk mugimendu fisikoa behar izaten dute, beste batzuei, aldiz, mugimenduak gehiago aktibatu egiten die. Erlaxatzeko teknikak oso eraginkorrak izan daitezke. Batzuetan beste estimulu sensorialek lagundu egiten die harrapatze-egoera horretatik irteten (hotza, zerbait pikantea ahora sartzea, argazki bat, musika jakin bat...).

**DEITZEKO PERTSONAK (ETA HAIEN TELEFONOAK)****Norengana jo dezaket hobeto egoten lagun diezadaten? (Adib.: Senideak, lagunak, irakasleak...)**

Min mentala dagoenean, hitz egitea da baliabiderik onena. Emozionalki hain gogorra den momentu hori drenatzea, deskargatzea. Honetarako lotura duen pertsona bat aukeratu ohi dute. Batzuetan bertan dago eta aurrez-aurre hitz egin dezakete eta beste batzuetan, telefonoz deituko dio. Pertsona honek, dei hau jaso ahal duela jakin beharko du, noski.

Kontutan izan, Segurtasun Plan hau ikastetxetik kanpo ere erabiliko dela, beraz, nori eta noiz deituko dion aurretik adostu behar da. Irakasle erreferentearen eskuragarritasuna ez bada osoa, ikasleak argi izan behar du deitzeko ordutegi aukerak zeintzuk diren (erreferentearen ordutegia ere izan dezake).

HARREMANETAN JAR NAITEKEEN PROFESIONAL EDO ZERBITZUAK (ETA HAIEN TELEFONOAK)**Zer profesionalengana edo zerbitzura jo dezaket egoera maneiatzeko? (Adib.: Psikologa, psikiatra, gizarte langilea, Zeuk esan (116111), 024, 112...)**

Aurreko atalean bezala, profesional hauek deia jaso ahal dutela jakin behar dute eta ados egon behar dira (ordutegi aukerak eta abar adostu behar dira). "Zeuk Esan" eta 024 telefonoei dagokionez, krisi egoeran ez dagoenean eta erreferentziazko pertsonarekin batera dei simulazioak egitea komeni da. Ikasleak zerbitzua aurretik ezagutu dezan.

**AURRERA JARRAITZEKO ARRAZOI ONAK**

Zerk piztu zaitu edo lagundu dizu beste une zail batzuk gainditzen? (Adib.: *Pertsona maitatuak, etorkizuneko proiektuak, erantzukizunak, lagunak...*)

Atal honetan ikaslearentzat pertsona maitatuak izan daitezkeenak aipatzera eta momentu edo proiektu positiboak adieraztera gonbidatzen zaio. Bizitzarekin konektoreak edo heldulekuak identifikatzera. Aurreko ataletan bezala, garrantzitsuena ez da bertan idazten dena, baizik eta behar den gogoeta, ahoz adieraztea eta, azkenik idaztea.



NIRE INGURUNEA SEGURUA IZAN DADIN LORTZEA

Zer bitarteko arriskutsu dauzkat eskura? (Adib.: Medikamentuak, substantzia toxikoak, produktu kimikoak...)

Nola muga dezaket bitarteko horietarako sarbidea?

Nork lagun diezadake?

Baliabide arriskutsuak

Ikasleak berak esango digu zein bitarteko izan daitezkeen arriskutsuak. Askotan irakasleon burutik pasatzen ere ez diren egoerak edo baliabideak izaten dira. Segurtasun Plan honek autolesio ez-suizidak ere izan behar ditu kontutan:

Adib.:

- Leihoak
- Labanak
- Medikamentuak
- Substantzia toxikoak
- Guraizeak
- Zorrozkiloaren labantxoak
- Komuneko ispilua apurtu eta kristalak mozteko erabili

Nola mugatu sarbidea?

Identifikatutako arrisku horiek nola saihestuko diren jasoko da. Proposamen horiek ikasleak egingo ditu, erreferentziazko pertsonaren laguntzarekin.

Adib.:

- Eskulekua ("manilla") kentzea edo kandadu bat ipintzea
- Labanak giltzapean utzi edo jantokian punta gutxikoak erabili
- Medikamentuak toki seguru batean egotea: giltzapean, ezkutuan...
- Sustantzia toxikoak giltzapean izatea
- Irakasleak izango du zorrozkilo bakarra gelarako
- Komunera ez da inoiz bakarrik joango

Hauetako neurri asko familiarekin partekatzea komeni da, ikastetxe kanpoko testuinguruetan ere kontuan har ditzaten.

GAIZKI BAZAUDE, SAIATU NEURRI HORIEK AHALIK ETA LASTERREN GAUZATZEN

**9. ERANSKINA¹ : ESKU-HARTZEAREN ERREGISTRO LABURRA**

Ikasleak krisi suizida bat izatekotan, ikastetxearen esku-hartzea jasotzeko eranskina da.

IKASLEARENGAN JOKABIDE SUIZIDA IZATEKO ARRISKUA DETEKTATU ONDOREN:

Izen-abizenak

Protokolo honen arabera jokatu dugu:	
	Arrisku-egoeratik aldentzea.
	Ikaslea lasaitzeko espazio egoki batera eraman dugu.
	Familiari deitu diogu.
	112ra deitu dugu.
	Beste bat: (Zein?)

Oharrak:

.....(e)n, 20....(e)koaren..... (e)(a)n

ZUZENDARIAREN IZENA ETA SINADURA

Sin.

1. Erregistro hori ikastetxeak baino ez du erabiliko; beraz, barne-dokumentu bat da. Ikastetxeak konfidentzialtasuna eta informazioa bermatuko ditu, datuen babesari buruz indarrean dagoen legediaren arabera.

**10. ERANSKINA: TRANTSIZIORAKO ETA IKASTETXERAKO ITZULERAKO PLAN PERTSONALIZATUA (TIIP)**

Suizidio saio baten ostean, ikaslearen itzulera prestatzeko txantiloia da.

Ikaslearen izen-abizenak:
Irakasle tutorea:
Krisi suizidari erantzuteko taldearen koordinatzailea
Krisi-egoeretan erantzuteko eskola-erreferentea:
Osasun-sistemako erreferentea:

Ohiko ikasgelan harrera egiteko prozesua (deskribatu nola egingo den)

Ikasleak eskatutako laguntzak:

Hezkuntza-neurri espezifikoak		BAI		EZ
• Malgutasuna eskolako sarrera- eta irteera-orduetan		BAI		EZ
• Lanak entregatzeko epeak luzatzea:		BAI		EZ
• Azterketa egiteko denbora gehiago izatea:		BAI		EZ
• Kanpo-kontsultetara joateko ordutegi-malgutasuna izatea:		BAI		EZ
• Ebaluazio-metodologiako aukerak (adierazi zeintzuk):		BAI		EZ

Beste egokitzapen batzuk (zehaztu):



Medikazioak izan ditzakeen ondorio kaltegarriak:		BAI		EZ
Deskribatu:				

Ikastetxean konektibitatea sustatzeko ekintza zehatzak proposatzea:

Ikaslea ikastetxera itzultzeko prozesuaren jarraipena egiteko eta sistema desberdinekin (familia, osasuna, ikaslea) koordinatzeko bilerak egiteko proposamena:

Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk:

..... (e)n, , 20....(e)koaren(e)(a)n

DATA ETA SINADURA, PLANEAN INPLIKATUTAKO PERTSONEN IZENAREKIN, ABIZENEKIN ETA KARGUAREKIN

Sin.

Sin.

Sin.



JOKABIDE SUIZIDAREN KASURAKO JARDUKETA-PLANA

Jokabide suizida izan duen ikasle baten esku-hartzea diskretua eta neurtua izan behar da, planifikatua. Txantilo honen laguntzarekin planifikazio hori era ordenatu batean egingo da. BAT taldeak duenez egoeraren inguruko informaziorik zuzenena, jarduketa-plana egiteko lan talderik eraginkorrena da.

Kontutan izan behar da, plan eraginkor bat zerbait dinamikoa dela, bizia. Testuingurua aldatu ahala eta aurreikusitako ebaluaketa prozedurari jarraiki, plana egokitzen joango da.

Jarduketa Planarekin hasi aurretik, ikaslearen egoera ondo ezagutu behar da, honetarako informazio iturri desberdinak kontuan hartu behar dira: irakasleria, familia eta, batez ere, ikaslea bera, erreferentziazko pertsonaren bitartez eta Segurtasun Plana tresna moduan hartuz. Hortaz, Jarduketa Plana egin aurretik Segurtasun Plana egin egon beharko litzateke.

1. IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Ikaslearen izen-abizenen inizialak	Hiru inizialak ipintzea komeni da (baldin baditu).

2. INFORMAZIO GEHIGARRIA ETA 1. ERANSKINA HEZKUNTZAKO IKUSKARITZARA ETA LAGUNTZA-ZERBITZUETARA BIDALI ONDOREN SORTUTAKO DATU GARRANTZITSUAK

Bileretatik, elkarrizketetatik, gelan ohartemantakotik, beste toki batzuetatik edota beste iturri batzuetatik bildutako informazio berriaren deskripzioa.

1. eranskina bete zenetik jarduketa-plana egin arte, hainbat informazio osagarri jasotzen da, batez ere, familia, kide eta ikaslearengandik (erreferentziazko pertsonaren bitartez). Atal honetan, aurretik jaso ez den informazio esanguratsua ipiniko da.

3. ARRISKU-FAKTORE IZAN DAITEZKEENAK

Faktore pertsonalak, familia-faktoreak edo eskola- eta gizarte-inguruneak (18-19 or.)*

Ohiko arrisku faktore pertsonalak:

- Aurretiko suizidio-saioa
- Autolesio ez-suizidak edo keinu suizida
- Bakardadea bilatzea edo talde-jardueretan parte ez hartzea
- Talde-komunikazioan zailtasunak sentitzea
- Emozioak, sentimenduak edo iritziak adierazteko zailtasuna
- Frustrazioen aurrean oldarkortasun handia eta tolerantzia txikia erakustea
- Nahasmendu mentala izatea
- Min fisiko kronikoa edo gaixotasun kronikoa izatea
- Ondoez emozionala sentitzea bizitzaren inguruabar estresagarrien ondorioz
- Alkohola edo bestelako drogak gehiegi kontsumitzea
- Baliabide hilgarrietara irispidea izatea
- Genero-identitate ez-normatiboa izatea

* Hezkuntza-eremuan jokabide suizida prebenitzeko, esku-hartzeko eta posbentzioa egiteko estrategiari dagozkio.



- Gehiegizko sentikortasuna
- Dolu-prozesu konplexu bat esperimentatzea
- Laguntza eskatzeko trebetasunik ez izatea
- Oso zorrotza eta perfekzionista izatea (batez ere eskolan)

Ohiko arrisku faktore familiarak

- Familiar suizidio aurrekariak izatea
- Pertsona maitaturen bat galtzea
- Familiartekoen alkohola edo bestelako drogak gehiegi kontsumitzea
- Familia barruko indarkeria-egoerak izatea
- Familia desegituratuetakoa izatea
- Zaintzarik eza
- Sekretuak ez jakinarazteko familiarekiko leialtasun gaizki ulertuen ondorioz laguntzarik ez eskatzea.
- Zorroztasun- eta perfekzionismo-maila altuko ingurune batean bizitzearen ondorioz, porrot eta etsipenezko sentimenduak sortzea eta autoestimua murriztea
- Berriki sexu-abusuen edo tratatu txar fisiko eta psikologikoen biktima izatea
- Amaren edo aitaren psikopatologia

Ohikoak diren gizarte eta eskola inguruneko arrisku faktoreak:

- Isolamendu soziala erakustea. Laguntzako gizarte-sarerik ez edukitzea
- Bullying edo cyberbullying-aren biktima izatea edo jokabide jazartzailea izatea
- Liminalitate edo deserrotze soziokulturala izatea
- Baztertua sentitzea
- Sexu-orientazio edo genero/sexu-identitate ez-normatiboa izatea
- Portaera-aldaketa bortitzak izatea
- Lehendik izandako errendimenduan jaitsiera nabarmentzea
- Maitasun-haustura bat izatea edo lagunak galtzea
- Estres akademikoa jasatea
- Suizidio-saio baten ondoren estigmatizazioa hautematea
- Interneten eta sare sozialen erabilera arazotsua
- Suizidioaren kutsatze sozialaren eraginpean egotea

4. BABES FAKTORE IZAN DAITEZKEENAK

Faktore pertsonalak, familia-faktoreak edo eskola- eta gizarte-inguruneak (17 or.*)

Ohiko babes faktore pertsonalak:

- Trebetasun sozial eta emozionalak garatzea
- Autoestimua handia eta bizitzan bizi-asmo edo esanahi bat edukitzea
- Jarrera eta balio prosozialak izatea
- Pertsonekin, familiarekin, komunitatearekin eta gizarte-erakundeekin konektagarritasuna izatea

Ohiko familia eremuko babes faktoreak:

- Familiarekin harreman eta lotura seguruak izatea
- Familia-ingurunean eskuragarritasun emozionala duten pertsonak eskura izatea
- Emozioak komunikatzeko aukera sentitzea
- Familia-ingurunean babestua sentitzea

Ikastetxe eta gizarte inguruko ohiko babes faktoreak:

- Parekoen arteko harreman eta lotura seguruak izatea
- Ingurunearekin harreman positiboak ezartzea (irakasleak barne)
- Gutxienez pertsona bat izatea gizarte- eta eskola-eremuan hitz egiteko eta laguntzeko
- Aisialdian jarduera osasungarriak egitea (bai bakarrik bai taldeka): ariketa fisikoak, jarduera artistikoak, boluntariorak, etab

* Hezkuntza-eremuan jokabide suizida prebenitzeko, esku-hartzeko eta posbentzioa egiteko estrategiari dagozkio.



- Komunikazio trebetasunetan heztea
- Laguntza eskatzen ikastea
- Arazoak konpontzeko, premiak aztertzeko eta informazioa bilatzeko heztea
- Porrotean heztea, balio positiboetan heztea: errespetua eta elkartasuna



5. HARTU BEHARREKO NEURRIAK

(Ikus 3. Eranskina*)

Erreferentziazko pertsonak

Ikasleak aukeratutako erreferentziazko pertsona adierazi, zenbatean behin biltzen dira.

Emozioak erregulatzeko lekua (Arnasgunea)

Ikasgela-zenbakia, edo lekuaren erreferentzia zehatza

Erreferentziazko pertsonak ikaslearekin hitz egiteko erabiliko duen gelaren aukeraketa oso garrantzitsua da. Toki diskretua eta abegikorra izango dugu. Etenik ez dela egongo ziurtatuz. Atetik eta leihotik inork ez duela pribatutasun hori apurtuko.

Gela hau ikaslearekin batzartzeko erabiliko da, bai krisi egoeretan, bai programatutako elkarrizketetan. Arnasgunea ikastetxeko ohiko baliabide gisa ulertu behar da, hau da, ikasle batek baino gehiagok erabili dezake. Erabilera handia bada, arnasmune bat baino gehiago egon daiteke, baina ikasle bakoitzak arnasmune bera erabiltzea hobesten da. Honek ikastetxe mailako antolaketa beharko du.

Segurtasun Planaren ildo nagusiak (ikaslearekin)

Alarma-seinaleak, ongizate-jarduerak, krisi-egoeretarako erreferentziazko pertsonak, etorkizuneko ilusioak, bitarteko hilgarrien eskuragarritasuna (8. eranskina)

Ikasleak erreferentziazko pertsonaren laguntzarekin osatu duen Segurtasun Planaren oinarritzko ildoak aipatuko dira. Hortaz, dokumentu hau egin aurretik, Segurtasun Plana egina egon beharko da.

Jokabide suizidako krisietan jarduteko prozedura (BAT taldea)

Zehaztu nork, zer eta nori. Larrialdietako telefonoak...

Ikastetxean krisi suizida edota autolesio ez-suizida egoera bat emango balitz, zein prozedura jarraituko litzatekeen zehaztuta egon beharko da. Esku-hartzea egingo dutenek nola jokatuko duten, nori dagokio egoeraren balorazioa egitea eta nora deituko duen, ikaslea non egongo den eta abar.

* Hezkuntza-eremuan jokabide suizida prebenitzeko, esku-hartzeko eta posbentzioa egiteko estrategiari dagozkio.



Pertsonaren barne-ongizateari buruzko neurriak

Ikaslearen autonomia emozionala eta autoerregulazio emozionala

Datozen hilabeteetan ikasleak bere egoeran hobekuntza izateko landuko diren alderdi intrapertsonalak aipatuko dira. Ezagutu diren arrisku faktore pertsonalekin koherenteak izango dira (dokumentu honen 3. atala).

Ohiko lan ildoak hauek dira:

- Kudeaketa emozionala: emozioa eta bere intentsitatearen identifikazioa
- Aserbitibitatea
- Autoexijentzia maila egokia
- Norberaren buruarekiko errukitasuna. Autodepreziazioari aurre egitea, auto-kontzeptu egokia
- Zama sentimendua.
- Ondorioztatze pentsamendua
- Laguntza eskatzeko trebetasuna

Lan ildoak adierazteaz aparte, nola bideratzeko asmoa dagoen aipatuko da.

Pertsonen arteko ongizateari buruzko neurriak

Talde-kohesioa, jazarpenaren tratamendua (halakorik balego), konektibitatearen hobekuntza

Haur eta nerabeengan egon ohi den min mentalaren jatorria konektibitate falta izan ohi da. Sarritan harremanen kalitate ezak arrisku faktore izan daitezke. Atal honetan ikaslearen harremanen hobekuntza planifikatuko dugu, datozen hilabeteetan lantzeko. Ezagutu diren arrisku faktore familiar, ikastetxeko testuingurukoa edota gizarte mailakoekin koherenteak izango dira (dokumentu honen 3. atala).

Hauek izan daitezke zenbait lan-ildo:

- Ikasgelako taldekideekin lagun sarea indartu
- Taldean toki segurua duela zaindu
- Jazarpena (balego) eten
- Ikastetxe kanpoko lagun sarea sustatu
- Estatusa duten aliantzak bilatu
- Estatusa eman / autoestimua bideratu
- Arrakastarako aukerak eman

Lan ildoak adierazteaz aparte, nola bideratzeko asmoa dagoen aipatuko da.

6. BILERAK FAMILIEKIN EDO LEGEZKO TUTOREEKIN

Datak, bertaratuak, bileraren helburuak eta ondorioak eta bileretan hartutako erabakiak.

Jarduketa-plan hau egin arte egin diren bileren datuak eta ondorioak hemen laburbilduko dira, baita etorkizunean egingo diren datak, deituak, maiztasuna eta helburua.

**7. JOKABIDE SUIZIDAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

Jarduketa Plan hau, dinamikoa izango da, testuinguruari erreparatuta, bizia. Prozesuak aurrera egin ahala, hainbat mugari ipiniko dira, egoeraren jarraipena egin eta prozesua ebaluatzeko. Honen arabera jarraituko den norabidea adostu eta behar diren moldaketak egingo dira.

Jarduketa-planaren jarraipena: prozedura, jarraipen-datak eta arduradunak.

Jarduketa-planaren eta egindako esku-hartzeen ebaluazioa

Hezkuntzako Ikuskaritzari informazioa emateko prozedura eta maiztasuna

.....(e)n, 20.....(e)koaren..... (e)(a)n

Zuzendaria

BAT taldeko kideak

Sin.:

Sin.:

.....

* Hezkuntza-eremuan jokabide suizida prebenitzeko, esku-hartzeko eta posbentzioa egiteko estrategiari dagozkio.